

ALKATEAREN ERABAKIA

GAIA: Dirulaguntza zuzena ESKOMOTOR

ESPEDIENTEA: 2025DDI20006

INTERESDUNA: Club deportivo automovilístico Esko Motor (IFK: G75111989)

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan 3000.00 euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du Club deportivo automovilístico Esko Motor-ren alde, 2025. urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

teknikariak egindako proposamenaren arabera, dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak kontuan hartuta, Idazkari-kontuhartzaileak egindako aldeko txostena ikusita, eta "Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra"-ren 6.artikuluak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENEGOA.- Udalaren eta Club deportivo automovilístico Esko Motor-ren (IFK: G75111989) artean egin beharreko hitzarmena .

BIGARRENA.- Club deportivo automovilístico Esko Motor-ri 3000.00-ko dirulaguntza ematea IV.rallysprinta antolatzeko.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren 7.klausulan jasotakoaren arabera, dirulaguntzaren %60 ordaintzea hitzarmena sinatu eta kirol aholkulariak ordainketa proposamena egin ondoren, hau da, 1.800,00€.

LAUGARRENA.- 3000.00-ko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 0300.481.341.90.01 partidari egozte.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025DDI20006-Alkate erabakia/Resolución (Club deportivo automovilístico Esko Motor)